

## **START INNOVA PROIEKTUA**

Jon Auzmendi, Javi Castaño, Alex Echarri eta Javi Castaño.

### **KANALAK:**

Oraingoan, gure kanalen funtzionamenduari buruz azalpena emango dugu, hau da, guk ekoiztutako produktua edo zerbitzua ezagutzeko emango ditugun pausoak eta behin hau bukatutakoan, lortutako bezeroek erosi duten produktua nola entregatuko diegun. Kanalaren barruan, mota desberdinak eta kanalaren une ezberdinak desberdintzen dira, motetan: Komunikazio kanala, Banaketa kanala desberdindu ditzakegu. Komunikazio kanalarik buruz hitz egiterakoan, eman dugun urratsik handiena egunkarian eta telebistan jarri dugun iragarkia eta herrian eskaintako hitzaldi publikoa (non gure produktuari buruzko datuak eta nola funtzionatzen duen erakutsi genuen) izan dira.



Banaketa kanala, daukagun denda bakarraren bidez banatu ditugu (lokala ez da gurea, hilerorrenta bat ordaintzen dugu bezeroak eskatu eta gero, produktuak jarri duten helbideetara bidali ditugu postaz. Baita ere, gure webguneko denda onlinetik eskaera egin duten bezeroei, posta bidez bidali diegu produktua. Azkenik salmenta kanalak, esan bezala, gure denda onlinea eta dugun denda izan dira. Dendaren kokapena aukeratzeko orduan, prezioa kontutan izanda, erabakitzerako orduan puntu garrantzitsuena bezala, beste denda batzuen ondoan kokatzea izan da, honetaz aparte ikusgarria den lekua izatea saiatu gara.



Kanal hauetaz aparte banaketan parte hartzen duten handikariak eta xehekariak ere ditugu, handikarien kasuan, txipa sortzeko beharrezkoa ditugun materialak, beste enpresa bati erosten dizkiogu. Momentuz, gure enpresak ez du material propiorik lortzeko modurik. Xehekari bezala, gure denda dugu, hau izango da azken salmenta

eta bezeroarekin lotura zuzena izango du. Webgunea xehekari moduko bat bezala kontsideratu daiteke, hau diot berez zerbitzu publiko bat erabiltzen dugulako webgunetik eskatu duten bezeroei beraien produktuak bidaltzeko. Nagusiki eta laburtuz, hau izango da gure salmenta sarea. Estaldura maila, bi epe desberdinetan banatuko dugu, mundu honetan berriak garenez, hasiera batean gure estaldura maila lokala izango da (denda eta webguneaz baliatuz). Aurrerago, behin diru nahikoa lortu eta gero hau zabaltzen saiatuko gara. Prentsa inportanteetan eta telebista kanal internazionaletan iragarkiak jartzen hasiko gara, hasieran esan dugun bezala, iragarkiak jarriko ditugu lehenengo momentutik, baina hedabide eskuragarriagoetan.

